

**Espediente mota:** Administrazio kontratazioa. Kontratu pribadua.

**Kontratua:** Zerbitzu kontratua, prozedura irekia, erregulazino harmonizaduari atxekituta.

**Espediente zenbakia:** 2013-58

**ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN**  
**ORRIAK**  
**ERREGULAZINO HARMONIZADUARI ATXIKITUTAKO PROZEDURA IREKI**  
**BIDEZKO ESLEIPENA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKINA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

1.1 Kontratuaren xedea hau da: Bermeoko Udalak 2014rako Aseguru Pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzea, jarraian zehazten diran aseguru pribatuen kudeaketarako zein aldian-aldian sortu daitekezanen kudeaketarako:

- Erantzukizun zibileko aseguria
- Kalte materialen aseguria
- Ibilgailuen aseguria
- Defentsa juridikoko aseguria
- Korporazinoko kideen bizi-tza aseguria
- Udal eta Kirol Patronatoko beharginen bizi-tza aseguria
- Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria
- Itsasontzietako kroskoen aseguria
- *Aita Guria* itsasontziko ekipamentua
- Udaleko eta bere organismo autonomoetako korporazino kideen eta langileen erantzukizun zibilaren aseguria ( Laburbilduta: erabakiak hartzen dabezenen erantzukizun zibilaren aseguria)

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen dan dokumentazino teknikoagaz bat etorrita egingo da. Baldintza-agiri honek kontratubalioa dauka.

1.2 26/2006 Legearen 26. artikulua eta horren arabera bat etorrita, esleitzen dan aseguru-artekaria edo aseguru-artekaritza, udalaren aseguru pribaduen



bitartekaritza merkataritzako jarduerara bete beharko dau, entitate aseguratzaileak aztertuzko suposatzen daben kontratu loturarik izan barik; udalari aholkularitza independietea eskainiko deutso, profesionala eta inpartziala, babestutako edo babesteko diran arriskuei jagokean; bere ustean sinatzeko egokiak diran kontratubaldintzei buruzko informazioa emongo dau, bere erispide profesionalaren arabera udalaren beharrezko ondoen egokitzen dan estaldura eskaitza; eraginkorrak eta eraginik handiena izan daien, polizek bete beharreko baldintzak ematen dirala zainduko dau; eta udalari, edo, bere, asegurudunei eta aseguruetako onuradunei polizetako klausulei buruz eskatzen daben edozein informazio emongo deusel eta ezbeharren bat gertatu ezker, laguntza eta aholkularitza eskainiko deutse.

1.3 Kontratu honen xedea bitartekaritza zerbitzutik eratorritako aseguruak be badiranez, eskaintzak aurkeztzen dabean artekariek edo artekaritzek, baldintza-orri honetan azaltzen diran aseguru guztien aipamena egingo dabe onartuak izateko eta euren eskaintzak aurkezteko aseguru-konpainien konpromisoa daukiela adierazoz beharko dabe.

## **2. KONTRATUAREN IZAKEREA.**

Kontratu honek izakera pribadua eukiko dau, polizak izenpetzeari jagokean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen dauen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboaren 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

## **3. KONTRATUGILEAK**

3.1 Kontratugileak izango dira, alde batetik, Bermeoko Udala eta, bestetik, kontratuaren esleipenduna izango dan lehiatzailea.

3.2 Esleipendunak bere jardueraren ohiko xedea beteko dau aseguruaren arloan, indarrean dagoan denpora guztian, baina horrek ez deutso ezelango diru-obligaziorik eragingo udalari.

3.3 Alde kontratatzaileen arteko kontu guztiak Udalak izapidetuko dauz artekaritza esleipendunaren bidez, eta artekaritza horri egindako jakinarazpenak, kasu guztietan, aseguru-etxeei egindakotzat hartuko dira, Aseguru Pribaduen Antolamentuari eta Ikuskapenari buruzko zementziaren 8ko 30/95 Legean aurreikusitakoa kontuan hartuta betibe.

3.4 Aurrekoa gorabehera, udala, halan eristen badeutso, zuzen-zuzenean joan ahal izango da aseguru-etxeengana.

## **4. ZERBITZUAREN ARAU OROKORRAK**

4.1 Kontratua baldintza-agiri honetako baldintzetara zorrotz lotuta gauzatuko da, eta agiria interpretatzeko administrazioak kontratisteari emoniko jarraibideak hartuko dira kontuan kasu guztietan.



4.2 Kontratistek proposamenean eskaintako ekipamentua eta bitartekoak ezarteko obligazioa eukiko dau kontratua egiteko.

4.3 Kontratua betearazoteko beharginak esleipendunaren mende egongo dira erabat, enpresaburu izateari datzekiozan eskubideak eukiko dauzalako berak, eta laneko legerian indarrean dagozan xedapen danak bete beharko dauz, baita laneko arriskuen prebentzino legeria be, kasu honetako beharginei jagokena, hain zuzen be.

4.4 Administrazioak edonoz eskatu ahal izango deutsoz kontratisteari teknikarietako bakotxagaz adostu dauzan kontratu agiriak erakusteko, horreen teknikarien nazinotasuna dana dalakoa dala.

4.5 Egiten diran beharrak, fase guztietan, administrazioaren jaubetzakoak izango dira. Halanda ze, administrazioak, edozein momentutan eskatu ahal izango dau egindako ikerketearen edo zerbitzuaren parte bat entregatzeko, behin betiko programea egiteagaz bateragarria bada eta beharren garapen zuzenari eragiten ez badeutse, betibe.

4.6 Kontratistek ezin izango dau berarentzat erabili ez beste inori emon kontratatutako lanetako daturik, ezta lanon edukia, osoa zein parte bat, argitaratu be administrazioaren idatzizko baimenik ez badauka. Kontratista izango da, kasu guztietan, obligazio hori ez betetearen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea.

4.7 Kontratistek derrigor emon behar deutsoz administrazioari ikerketea edo zerbitzua egiterakoan erabili dauzan datu, kalkulu, prozesu eta prozedura danak.

4.8 Kontratista izango da egin dauzan beharren eta emon dauzan prestazioen eta zerbitzuen kalidade teknikoaren erantzulea, baita kontratua gauzatzeko ez egiteakaitik, akatsakaitik, metodo ezegokiakaitik edo okerreko ondorioak atarateagaitik administrazioari edo beste batzuei eragindako ondorioen erantzulea be.

4.9 Kontratistek aparteko kostu barik emon beharko deutsoz administrazioari azkenengo horrek kontratuaren xedea behar dan moduan bete daiten beharrezkotzat jotzen dauzan zerbitzu profesional guztiak, hala nola, azalpenak emoteko nahiz jendaurreko informazioa emoteko batzarretara joatea.

4.10 Aurreko paragrafoa garatzean eta kontratuaren berariazko betebeharrak modura, esleitua gertatzen dan bitartekariak gitxienez hilabetero udaletxean batzar bat izateko konpromisoa hartu behar dau, udalaren aseguru arduradunek horretarako deitzen deutesien baxtasun, aseguru egoera zein dan eta zelan hobetu leitekeen azaltzeko eta gai orokorretaz berba egiteko, kalidadearen kontrola be barru dala; guzti hori, aseguru eguneroko kudeaketaz kanpo.

## **5. ESLEIPENDUNAK EMON BEHARREKO ZERBITZUAK**

5.1 Aseguru bitartekariak benetako informazioa eta informazio nahikoa emon behar dau aseguru polizen promozinarako, eskaintzarako eta harpidetzarako, eta beraren

3



ustez harpidetu behar diran kontratuaren baldintzen ganeko informazioa emon behar dau, baita une bakoetako beharrezkoak ondoen egokitzen diran estaldurei buruzko aholkularitza eskaini be. Era berean, polizak erabat eragingarriak izan daitezzen baldintzak egon daitezala bermatu behar dau.

5.2 Parte hartu dauen aseguru kontratuaren indarraldian polizetako edozein klausulari buruzko informazioa emon beharko dau halan eskatzen jakonean, eta, ezbeharra jazo ezker, laguntzea, aholkularitza eta jarraipena eskaini beharko dauz derrigor, harik eta ezbeharra konpondu arte.

5.3 Urteko txosten teknikoak egingo dau. Bertan hurrengo urtean aseguratu beharreko ariskuen inguruko ebaluazioa be sartu beharko dau.

5.4 Bitartekariak, 1. baldintzan berariaz zehazten ez diran aseguru polizak kontratatzeke deialdien kasuetarako, jagokon lehiaketarako oinarritzat erabiliko diran baldintza teknikoak agiria egin beharko dau, eta aseguru konpainietatik jasoriko eskaintzen barri emon beharko dau ostean.

5.5 Bermeoko Udalak kontratatutako aseguru polizen ezbehar-kopuruaren zerrenda zehatz eta estadistikoa egin beharko dau bitartekariak, modu informatizatuan egin be. Hori dala-eta, txosten bat egin beharko dau hiru hilero, poliza bakoetako ezbeharrek zehaztuta eta horreetako bakoetaren egoeraren ganeko barri emonda.

5.6 Esleipendunak, zerbitzuaren xedea ondo garatu eta bete daiten, bere arlo profesionaleko beharrezko zerbitzu guztiak emongo deutsoz Bermeoko Udalari, hala nola, laneko azalpen batzarretara joatea, aseguruen alorrari buruzko informazioa emotea, prestakuntza saioak, etab.

5.7 Beraren bitartekaritzaren bidez formalizatutako aseguru pribaduen kontratuei jagokezan kudeaketa eta eratorpen guztiak artatzeko obligazioa eukiko dau esleipendunak, aitatutako horreek kudeaketak sortzen diran datan sortzen dirala.

5.8 Kontratutako aseguru polizan egon daitekezan frankiziak kontuan hartuta, kontratu honen esleipendunak laguntzea eta aholkularitza emongo dauz, eta udalaren erantzukizuna norainokoa dan jakiteko beraren eretxia emongo dau.

**5.9 Esleipendunak kontuan euki behar dau erantzukizun zibileko polizeak estaltzen dauzan ezbeharren tramitazioa, ebazpenerako tramiteei eta epeei jagokenez, administrazio prozedurearen mende dagoala.**

## **6. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA**

6.1 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen dauan azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboaren 303 artikulua ezarritakoagaz bat etorrita, kontratuak urte biko iraunpena eukiko dau, 2014ko urtarrilaren 1ean hasita,



eta beste urte bira arte luzatu ahal izango da, aitatu dogun artikulua baimentzen dauena kontuan izanda, 3 hilabeteko aurretiaz, alderdi bien adostasunagaz.

Kontratazio organoa: Gobernu Batzordea.

Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko deutse, nahiz eta Udalak aurretik ez ohartarazi.

6.2 Aurreko 6.1 atalean adierazotako kontratu hasierearen kalte barik, gaur egun dagoan kontratuko banakako polizen amaiera egunak kontutan izan beharko dira kontratu honetako polizen hasiera eguna finkatzeko, horretarako honako informazioa emoten da:

Indarreko aseguruak	Amaiera data
Erantzukizun zibileko aseguruak	2014-01-01
Kalte materialen aseguruak	2014-01-01
Ibilgailuen aseguruak	2014-01-01
Defentsa juridikoko aseguruak	2014-01-01
Korporazinoko kideen bizitza aseguruak	2014-01-01
Kirol Patronatuko beharginen bizitza aseguruak	2014-01-01
Udaleko beharginen bizitza aseguruak	2014-01-01
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguruak	2014-01-01
<i>Aita Guria</i> Itsasontziko ekipo elektronikoak	2014-11-06
<i>Aita Guria</i> itsasontzia	2014-01-01
<i>Ortube</i> itsasontzia	2014-01-01
Erabagiak hartzen dabezanen erantzukizun zibilaren aseguruak	2014-08-27

6.3 Bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzu kontratuaren iraupenagaz bat etor daitezkan, zerbitzuaren esleipendunaren bidez kontratatutako aseguru barrien 2014. urteko polizen iraupena 2014ko abenduaren 31ko 24:00etara artekoa izango da. Horrela, Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoaren eta erabagiak hartzen dabezanen aseguruaren 2014ko prima esleipendunak eskaintutako urteko prima laindua izango da.

## 7. KONTRATUAREN PREZIOA

7.1 Kontratuaren aurrekontuan ez da artekariaren kosturik sartzen, izan be, aseguru pribaduen kontratuaren esleipeneko zenbatekoari jagokonez, kontratu honek ez deutso udalari aparteko gasturik eragingo, esleipeneko zenbatekoan sartuta dagoalako artekariak hartu beharreko portzentajea.

Halan, esleituta gertatzen dan artekaria edo artekaritzaren bitartekaritza kontratutik preziorik sortzen ez bada be, primak bai eratortzen dira gertatzen diran aseguruetatik,



halan ba, kontratuaren prezioztat hartuko da kontratuak irauten dauen denpora guztian bitarterkaritza lanetik sortzen diran aseguru kontratuetakoko prima guztien gutxi gora beherako zenbatekoa, egin leikezan luzapenak be barruan dirala, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen dauan azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboaren 87 eta 88. artikuluek ezarritakoa kontuan izanda.

7.2 2014. urteko aurrekontuan udalak aurrekontuko honeek kredituak esleitzeko konpromisoa hartuko dau:

Erantzukizun zibileko aseguria	49.954,98
Kalte materialen aseguria	24.043,98
Ibilgailuen aseguria	19.782,83
Defentsa juridikoko aseguria	1.247,28
Korporazinoko kideen bizi-tza aseguria	4.984,57
Kirol Patronatuko beharginen bizi-tza aseguria	3.036,41
Udaleko beharginen bizi-tza aseguria	38.754,92
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	1.365,39
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	1.085,13
Aita Guria itsasontzia	35.760,89
Ortube itsasontzia	5.412,06
Erabagiak hartzen dabezanen erantzukizun zibilaren aseguria	3.902,14

7.3 Kontratu honen zenbatekoa honako hau da kontratu aldi osoa, luzapenak be, kontuan izanda:

Erantzukizun zibileko aseguria	199.819,92
Kalte materialen aseguria	96.175,92
Ibilgailuen aseguria	79.131,32
Defentsa juridikoko aseguria	4.989,12
Korporazinoko kideen bizi-tza aseguria	19.938,28
Kirol Patronatuko beharginen bizi-tza aseguria	12.145,64
Udaleko beharginen bizi-tza aseguria	155.019,68
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	5.461,56
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	4.340,52
Aita Guria itsasontzia	143.043,56
Ortube itsasontzia	21.648,24
Erabagiak hartzen dabezanen erantzukizun zibilaren aseguria	15.608,56
<b>DANETARA</b>	<b>757.322,32</b>



**7.4- Bizitza aseguruei (\*) jagokenean, baldintza plegu teknikoetan erantsita dagoan zerrenda kontratazino espedientea prestatzean, hau da, 2013ko maiatzaren 7an, dagozan langile laboral eta funtzionario eta korporazinoako kideei jagoke. Polizaren hedadura ezagutzeko balio dau, aseguratu en gitxi gorabeherako kopurua, adina eta sexua kontutan izanda lizitatzailleek proposatutako adin eta sexuen araberrako primak aplikatuta, gastu proposamena zehazteko.**

**Esleipendunak proposatutako adin, sexu eta ezintasun primak kontutan izanda eta 2014ko urtarrilaren 1ean aseguratu beharreko langileen zerrendaren arabera ataritzen dan zenbatekoagaz jaulkiko dau poliza.**

## **8. FINANTZAZINOA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusiko da 2014. urteko ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Bestalde, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, behar beste kreditu jarriko dau jagokon organoak.

## **9. NOLA ORDAINDU**

Ordainketa, esleipendunak aurkezten dauzan fakturak udalak onartu ondoren, aurkezten dan egunetik 30 egunera egingo da.

## **10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Hurrengo aldietako primak kalkulatzeko hauxe baino ez da kontuan hartuko:

- Kontratuaren luzapena egin ezkerro, prezioak berraztertu ahal izango dira KPIren arabera, beti be, Sektore Publikoaren Kontratu en Legear en Testu Bateratua onartzen dauan azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboaren 90 eta 94 artikulua xedatutakoa kontutan izanda eta espresuki 90.3.artikulu en adierazotako mugeagaz, hau gehienez KPIren %85ean aplikatu ahal izango da.

- Zergetan egon daitekezan aldaketak, aseguru polizetan eragina euki daikien tributuak.

## **11. BERMEAK**

Behin-behineko bermea: lizitazino prezioaren %2a izango da BEZ kanpo, eta lizitatzailleek hori jarri behar dabe lehiaketa honetan parte hartzeko. Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dabela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo dabela ziurtatzeko



eskatzen da behin-behineko bermea. Izan be, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badau bidezko arrazoi barik, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik ipinten ez badau, edo beraren erruagaitik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearazoko da.

Hori dala eta, enpresa baten eskaintzeari ausartegia eretxita enpresa horri informazioa eskatzen bajako eta berak erantzuten ez badau, proposamena bidezko arrazoi barik bertan behera itzi dauela uste izango da, eta era berean, lehiatzaileen batek proposamen akastuna edo oinarririk bakoa aurkeztu dauela eta ezin leikeela bete aitortzen badau, gauza bera uste izango da.

Behin-betiko bermea: kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dauzela bermatzeko, behin betiko bermea ipini behar dau. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki danean, lehiaketaren oinarriko aurrekontuaren edo esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da.

Behin-betiko bermea ipinteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, esleipen proposamena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea ipinteko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen diranetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen danean, esleipendunari bermea itzuliko jako, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badagoz.

## **12.- KONTRATUA BURUTZEA**

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen aginduekoei egotzi dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar dan moduan burutzea kolokan dagoala, kontratua behar dan lez burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

## **13. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK**

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren arloan indarrean dagozan legezko xedapenak bete behar dauz. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Enpresa Jardueren Koordinazinarako betekizunak bete beharko dauz (I. eranskina).





Administrazioak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horreek beteten ez badira.

Zerbitzuak emoten jardungo dauen enpresek, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko hartu-emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko bere hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko dau, beti be, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriei buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak dirala-eta, enpresa esleipendunak udalean lan egingo dauen langilearen bitartez, Datuen Tratamentuen arduradun izakera bere gain hartzen dau eta nahitaez bete behar dauzan legezko betebeharez, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko dau kontratu honek arautzen dauzan atzipenaren menpeko datu pertsonalagazko lanbide sekretua; eta Toki erakundeagaz daukazan hartu-emonak amaitu ostean be, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo dau. Tratamentuaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diran neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horreek aldatu edo galdu ez daitezkan eta baimen bako tratamenturik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren berme lez, II. eranskin modura agertzen dan konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamentuaren arduradunak ez badauz beteten kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betete horreen ondorioz sor daitekezan erantzukizunetatik:

- Tratamentuaren arduradunak datu pertsonalak erabilten badauz alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez daben bestelako helburu baterako.
- Tratamentuaren arduradunak hausten badau datuekatzko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamentuaren arduradunak datuak erabiltzen badauz kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau haustek egiteagaitik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez beteteagaitik, tratamentuaren arduraduna tratamentu kontrolatzailezat joko da, eta erantzun beharko deutse berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu daiekizan erreklamazioei, bai eta kaltetuei onartzen jakezan kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak dirala eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.



Kontratu hartu-emonaren legez amaitu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli beharko jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak daukazan edozein euskarri edo dokumentugaz batera.

#### **14. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADEUTSEZ**

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jaubetza edo zerbitzu publiko edo pribaduri egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dagozan langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar dan moduan ez antolatu, babestu edo bestelakoakaitik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor leitekezan kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoagaz bat etorrira.

#### **15. KONTRATUA ALDATZEA**

Aseguru pribaduen bitartekaritza zerbitzuen kontratuak xede dauka baita, esleitzen dan artekaritza edo artekariak udalarentzako aholkularitza profesional eta objektiboa emotea, bere kasuan, kontratatutako polizak hobetzea ahalbideratuko dauena, hobeto egokitzeko aseguratu dan udalaren edo polizetako onuradunen beharrezanetara. Aholkularitza kualifikatu honen barruan sartzen da, udalak holan eskatu ezkeron, polizen estaldurearen edozein alderdi hobetzeko gomendioa egiteko aukerea (Aseguru eta Berraseguru Pribaduetako Bitartekaritzari buruzko 26/2006 Legearen 6, 26 eta 29. artikulua).

Bitartekaritza seguru pribaduetan eta sektore publikoaren kontratazino araudietako kontratuen aldaketea sistematikoki arautzean, Orri honen bidez aurreikusitako eta ahalbideratu egiten da bitartekaritzearen xede diran polizak etorkizunean aldatzea, hurrengo kasu, baldintza, muga eta prozeduratan:

- 1) Ohiko aldakuntza baterako prozedura zabalduko da, udalbatzak eskatua, bitartekariak kontratatutako poliza baten edo gehiagoren estaldurearen edozein alderdi hobetzeko gomendioa egiten dauenean; eta primaren gehiketarako "Pertsonen Aseguruetako" edo "Ondarearen Kalteen Aseguruetako" (zein kasu dan kontuan izanda) urteko primaren % 10a gaitzen ez dauen bitartean eta honeei kontzeptuei aurrekontuan esleitutako zebatekoak gehitzea ez dakarren bitartean.
- 2) Gomendioa Errenta eta Ondare Sailak baietzean informatuta, Ekonomia, Errenta eta Ondarearen Kontratazino Mahaira eroango da, honek, ondo eretxita, Alkatetzeari egin deion aldaketea onartzeko proposamena.



3) Hala baderitxo, Alkatetzeak onartu egingo dau aldaketea.

Klausula honen eraginetarako, ez ohiko aldaketa lez hartuko da atal honetan adierazotako muga ekonomikoak gainditzen dauzana. Kasu honetan, aldaketea egokia bada edo ez erabagiteko, alderdi legalak aztertzeaz gain, beharrezkoa izango da aurretiaz kreditu aldaketea tramitatzea.

Aurrekoaren kalte barik kontratazino plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan be kontratua aldatu ahal izango da.

Herri-onurako arrazoiak dirala eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuaren V. tituluko kasuetan emoten diran kontratu aldaketetan, kontratazino organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, Errege Dekretu Legegilearen 219. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozedurearen bitartez burutuko dira.

## **16. ZERBITZU HARTZEA ETA BERME EPEA**

Kontratuaren xedea dala eta, ez da zerbitzu hartzerik ez berme eperik aurreikusten.

## **17. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETEN EZ BADAUZ**

### **A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRALA ETA**

Esleipendunaren erruagaltik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu barik badago, Administrazioak aukera bi izango dauz: kontratua bertan behera itzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igaroten dan egun bakoetako diru-zigorra ipintea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko (212. artikulua).

Atzerapenari jagokozan zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen dauen bakoetean, kontratazino-organok aukerea izango dau kontratua bertan behera izteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin daitela erabagiteko.

### **B) PRESTAZINOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DALA ETA**

Esleipendunak, bere erruagaitik, kontratuko prestazinoen burutzapen partziala



epean amaitzen ez badau, Administrazioak aukera bi izango dauz: kontratua bertan behera iztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aitatzen diran zigorrak ipintea (212.7 art).

## 18. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308 artikuluetan azaltzen diranak izango dira eta aseguruaren bitartekaritza arautzen dauen araudi sektorialeko kausetan eta aseguruaren eurretan sistematikoki sartuta aplikatuko dira.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 309. artikuluetan aurreikusten diranak izango dira.

## 19. ADMINISTRAZINOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari jagoko a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sortu daitekezan zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiakaitik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera emotea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

### 20. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrira.

Esleipena egiterakoan, honako erispide honeek hartuko dira oinarritzat, lizitatuak bakoitzaren aseguru proposamen danentzako batuketara eginda:

a) Gehiengo lez jarritako gastu zenbatekoa berantz hobetzea edo merkeena izatea, 45 puntu gehienez.

Zeren aseguru	Primak/gastua
Erantzukizun zibileko aseguru	gehiengo gastua 49.955 €
Kalte materialen aseguru	gehiengo gastua 24.044 €
Ibilgailuen aseguru	Ibilgailu mota bakoitzarentzako prima
Defentsa juridikoko aseguru	gehiengo gastua 1.247 €

Korporazinoko kideen bizi-tza aseguru-a	adin edo bestelako-en araberako primak
Kirol Patronatuko beharginen bizi-tza aseguru-a	adin edo bestelako-en araberako primak
Udaleko beharginen bizi-tza aseguru-a	adin edo bestelako-en araberako primak
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru-a	adin edo bestelako-en araberako primak
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	gehiengo gastua 1.085 €
Aita Guria itsasontzia	gehiengo gastua 35.760 €
Ortubere itsasontzia	gehiengo gastua 5.412 €
Erabagiak hartzen dabezanen aseguru-a	gehiengo gastua 3.902 €

Formulea:

X = aurkeztutako primarik txikienaren zenbatekoa; P =45; Y = aurkeztutako beste primetako bako-txaren zenbatekoa; Proposamen bako-txaren puntuazinoa = P(X / Y)

b) Frankiziak, 20 puntu gehienez

**PROPOSAMENeko FRANKIZIEN ZENBATEKOA BEHERANTZ HOBETZEA KONTUAN HARTUKO DA**

Zeren aseguru-a	Frankizia
Erantzukizun zibileko aseguru-a	gehiengo-a: 1.500 €
Kalte materialen aseguru-a	gehiengo-a: 300 €
Ibilgailuen aseguru-a	frankiziarik ez
Defentsa juridikoko aseguru-a	frankiziarik ez
Korporazinoko kideen bizi-tza aseguru-a	frankiziarik ez
Kirol Patronatuko beharginen bizi-tza aseguru-a	frankiziarik ez
Udaleko beharginen bizi-tza aseguru-a	frankiziarik ez
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru-a	frankiziarik ez
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	gehiengo-a: 500 €
Aita Guria itsasontzia	gehiengo-a: 3.000 €
Ortubere itsasontzia	gehiengo-a: 1.000 €
Erabagiak hartzen dabezanen aseguru-a	frankiziarik ez

Formulea:

X = aurkeztutako frankiziarik txikienaren zenbatekoa; P =20 ; Y = aurkeztutako beste frankizia bako-txaren zenbatekoa; Proposamen bako-txaren puntuazinoa = P(X / Y)

c) Etekinetan partizipazioa edo prima hobaria: gehiengo 15 puntu. Bizitza polizetan, eskainitako kopuruaren ganera, banakako polizan edo guztiak bateratuta aplikatuko dan

13



eukiko da kontuan.

Zeren aseguria	Etekinak
Erantzukizun zibileko aseguria	X
Kalte materialen aseguria	X
Ibilgailuen aseguria	ezbehar ezean prima hobaria
Defentsa juridikoko aseguria	X
Korporazinoko kideen bizitza aseguria	Etekinetan % partizipazioa
Kirol Patronatuko beharginen bizitza aseguria	Etekinetan % partizipazioa
Udaleko beharginen bizitza aseguria	Etekinetan % partizipazioa
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	X
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	X
Aita Guria itsasontzia	X
Ortube itsasontzia	X
Erabagiak hartzen dabezanen aseguria	X

Formulea:

X = % partizipazio edo hobari kopururik handiena; P = 15; Y = besteetako bakoetaren kopurua; Proposamen bakoetaren puntuazioa:  $P(Y / X)$

d) Plegu teknikoetan zehaztutako aseguru bermeak gehitzea edo hobetzea, 20 puntu, gehienez.

Formulea:

X = gehitutako edo hobetutako berme kopururik handiena; P = 20; Y = besteetako bakoetaren kopurua; Proposamen bakoetaren puntuazioa:  $P(Y / X)$

## 21. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna daben pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dabe kontratazino-jardunbide horretan, baldin eta euren kaudimen tekniko eta ekonomikoa frogatzen badabaz, eta kontratatzeke debekuren bat ez baukie, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazotako arrazoiak dirala eta.

Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 22. baldintzan ezarritakoak izango dira. Besteak beste, kualifikazioa eta esperientzia, proposatutako bitartekoak eta memoria teknikoak erakutsi beharko dauz.

Ziurtagiri gaurkotua aurkeztu beharko da, Aseguru eta Pentsino-Fondoko Zuzendaritza Nagusiarena – edo horren pareko organo autonomikoarena – artekaria edo artekaritza hori, Aseguruaren Bitartekaritza eta Berraseguru pribaduen 26/2006 Legearen 52. artikulua aurrekusten dauen aseguru-bitartekariaren, berraseguruaren artekariaren eta euren goi karguen Administrazio Erregistro Berezian izena emonda dagozanarena. (Kontuan izan behar da, bitartekaritza lana burutzeko -26/2006 Legearen 27. artikulua – derrigorrezkoa dala aurretiaz Erregistro horretan izena emonda egotea eta, inskripzioa lortu eta mantentzeko behar diran beste batzuen arteko baldintzetan honakoak dagozala: pertsona fisikoek artekari lana burutzeko eskumen legala izatea eta merkataritzazko soziedadeak edo kooperatibak pertsona juridiko modura Merkataritza-Erregistroan inskribatuta egotea; finantza eta aseguru pribadu kontuetan prestakuntza eta esperientzia izatea; zintzotasun komertziala eta profesionala izatea; ardurabakotasun profesionalaren ondoriozko erantzukizunei Europar Esparru Ekonomikoaren lurralde guztian babestuko dauen finantzazko bermea edo erantzukizun zibilaren aseguruaren jaube izatea; behar dan besteko finantza ahalmena izatea; aseguru arloen erakuskari moduko jarduera egitaraua aurkeztu izatea eta zein arrisku moztetan ari dan, giza baliabideak eta baliabide materialak sartzen diran egitura eta langileentzako prestakuntza programea agertzen dan txostena aurkeztea; eta ez egotea sektorearen araudiak xedatzen dauzan bateraezintasun kasuen barruan).

Pertsona fisiko edo juridiko atzerritarren kasuan, artekaria edo artekaritza hori Administrazio Erregistro Berezian izena emonda dagoanaren, goian aitatutako Aseguruaren eta Pentsino-Fondoaren Zuzendaritza Nagusiaren – edo haren pareko organo autonomikoarena- ziurtagiri gaurkotu horren ordeztu, Sailkapenaren Erkidegoko Ziurtagiria edo Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen dauen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek euren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dabe. Ordezkariak kontratatu ezkerok, berariaz emondako ahalorde askietsia erabili beharko dabe. Pertsona juridiko baten ordeztu bertako kideren bat azaltzen danean, ordezkaria izateko ahalmena daukala probatu beharko dau agiri bidez. Kasu bietan be, kontratatze gaitasunik eza dakarren arazoak, gorago aitatutakoak, ordezkariari be aplikatu behar jakoz.

Ganera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar dau kontratu honen gaiagaz, eta hareen erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material euki behar dauz.

## **22.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio honen espediente, bai eta horregaz batera doan dokumentazio tekniko be, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:



LEKUA: Administrazio honetako Erregistro Orokorra (Berh@z – Bermeoko herritarrentzako arreta zerbitzua), Ertzilla kalea, 6-8, 48370 Bermeo).

EPEA: Iragarkia Bermeoko Udaleko web orrialdean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

ORDUA: Asteleheneetik barikura, 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30-19:00. Zapatuetan 10:00-13:00. \* Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

PROPOSAMENAK AURKEZTEA: aurretik adierazotako leku eta ordutegian aurkeztuko dira egutegiko 40 eguneko epean, iragarkia bide telematikoz bialduko baita, eta dokumentazio guztia bide elektronikoak erabiliz eskuragarri izango da Bermeoko Udaleko web-orrian. Epe hau, Europar Komisiora iragarkia bialdu eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen eta, edozein kasutan, BOEn argitaratzen danetik gixienez 15 eguneko epea egongo da (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 159. artikulua).

Lehiatzaileek kartazal bi (A eta B) aurkeztu beharko dabez itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “ASEGURU PRIBADUEN ARTEKARITZA KONTRATUA”

“A” kartazalaren azpititulua hau izango da: “**KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izan ezkerro:
  - Jagokon Erregistro publikoan behar dan moduan erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze dataa.
  - Administrazioagaz kontratatu ahal dauela egiaztatzen dauen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen dauenaren alde.
  - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeko debekurik ez daukala aitortzea (IV. Eranskina).
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak beteten dauzela kreditatzen dabezan ziurtagiriak.
- e) Ekonomia Jardueren ganeko Zergan, kontratuaren gaiari jagokon epigrafean hain zuzen be, altea emon deusiela probateko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko dau, uneko ekitaldian bertan hartua badauka, edo EJZren azken ordainagiria, generako kasuetan. Beti be, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko dau.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar dan moduan egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VIII. Eranskina). VIII. Eranskinetako datuak





betetzeaz ganera, enpresa lehiatzaileek ondoren zerrendatzen dan dokumentazioa aurkeztu beharko dabe, baita euren eskaintzearen kaudimen tekniko oinarritzeko balioko dabela uste daben ganerako datuak, informazioa edo dokumentuak be:

### *I. KUALIFIKAZINOA ETA ESPERIENTZIA*

1. Egoitza soziala eta Euskal Herriko ordezkariak
2. Lehiatzaileak azken hiru urteotan euki dauen aseguru-zorroa, eskaintzen diran sortakaz parekatu daitekezan aseguru-arloka banakatuta.
3. Enpresako behargin tekniko espezializaduen curriculum, lanbide-kategoria, titulazio akademikoa adierazota eta enpleguan izandako egonkortasuna zehaztuta.

### *II. PROPOSATUTAKO BITARTEKOAK*

Atal honetan lehiatzaileak txosten bat aurkeztu beharko dau eta, bertan, kontratua beteteko udalaren esku itziko dauzan bitarteko materialak eta giza materialak jasoko dauz. Era berean, kontratu hau beteteko izendaturiko beharginek izango daben funtzinoa eta dedikazio maileak be azaldu beharko dira bertan.

### *III. MEMORIA TEKNIKOA*

Kontratistek erabiliko dauen metodologia azaltzeko txosten tekniko aurkeztu beharko da. Txosten horretan zerbitzurako izendaturiko beharginek eukiko daben disponibilitadea, erantzuteko gehieneko epeak, ezbeharren tramitaziorako prozedurak eta zerbitzuaren kalidadea bermatzeko lehiatzaileak beharrezkotzat jotzen dauzan bestelako kontu danak azaldu beharko dira.

### *IV. ASEGURU-BITARTEKARIEN ERREGISTROAN IZENA EMONDA DAGOANAREN ZIURTAGIRIA.*

Aseguru eta Pentsio-Fondoetako Zuzendaritza Nagusiaren –edo haren pareko organo autonomoaren - ziurtagiri gaurkotua, artekari edo artekaritza hori Aseguru bitartekari edo Berraseguru Artekarien Administrazio Erregistro Orokorrean izena emonda dagoana egiaztatuz eta bere Goi Karguena be bai, pertsona fisiko edo juridiko espainiarrak diranean. Saikapenaren Erkidegoko Ziurtagiria edo Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen dauen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dira.

- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar dan moduan egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VII. Eranskina).



- h) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.
- i) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea emon izanaren frogagiria.
- j) Erbesteko enpresek, kontratuan gerta leikezan zuzeneko edo ez zuzeneko gora-beheren aurrean Espainiako Epaitegi eta Auzitegien juridikzioaren mende jarriko diranaren adierazpena aurkeztuko dabe, eta hala behar izan ezker, jagoken erbesteko juridikzino-foruari uko egiten deusiela adierazo beharko dabe.

\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitazailen Erregistroan izena emonda badago, a) b) c) eta d) ataletan aitatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emonda dagoanaren indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diralaren eta indarrean dagozanaren zinpeko aitortpena (VI. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu daitezke. Kopiak aurkeztekotan, errekerimentua jaso eta gero, Administrazioak edo notarioak behar dan moduan kautotu edo egiaztatu behar dauz. Errekerimentua jasoten dauen parte-artzailak 10 eguneko epea izango dau hori egiteko.

“**B**” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “**PROPOSAMENA**”. Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen bakarra**, 1go. baldintzan zehaztutako aseguru xede guztien prima garbiak adierazota eta eskaintzaileak edo aurkezten dauen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren **III. eranskin modura agertzen dan ereduaren arabera** idatzita. Era berean, eranskin horri erantsi behar jakoz be, operazioa zergapetu daikien zergak, gastuak, tasak edo arbitrajeak zein polizearen azken prezioan eragin daiken beste edozein gastu.
- b) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta daukazan dossier bat aurkeztu behar izango dabe, jagokon izenburuagaz. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketea esleitzeko baloratuko diran erispideei buruzko alderdi guztiak.
- c) Hala aurreikusten bada, B gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren Eranskinak sartuko dira.
- d) Ez dira onartuko proposamen honeek:



- 1) Kontraesanak, ez aitatzek, akatsak edo zirriborroak daukiezanak, Administrazioak eskaintzea aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen dauena argi ikustea eragozten badabe.
  - 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioagaz bat ez datozenak.
  - 3) Eskaintzearen aurrekontua edo gehienezko tasea gainditzen dabezanak.
  - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia daukienak.
  - 5) Pleguaren III. Eranskin modura ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dabeneak.
  - 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten daben akatsak edo funtsik ez daukiezanak.
- e) Letretan adierazioako eskaintza zenbakietan adierazotakoagaz bat ez badator, letretan adierazotako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erispideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badau salbu.
- f) Eskaintza bakotzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dau. Pleguan baimena emoten bada bakarrik, soluzino aldakorrak ahal izango dauz; horretaz, eskaintza ekonomikoak be ezberdinak izan daitezke.
- g) B kartazal honetan lehiatzaileak eskaintzen dauzan Aseguru Pribaduen Kontratuetak ezaugarrien deskripzioa be sartu behar da, eta gitxienez hauxe adierazo beharko da:
- Arriskuari aurre egiten deuteson konpainia edo konpainiak.
  - Aseguru-kontratuaren zenbatekoa.
  - Arriskuen baldintza orokorren ale bat
  - Eskaintako frankiziak, etekinetako %/hobariak, eta berme gehiketak eta edo hobekuntzak.
- X. Eranskinean zehaztuta dagozanak eranskin horretan aurkeztuko dira.

Udalak bertan behera itzi daike esleitutako bitartekariagaz egin beharreko Aseguru Pribaduen Bitartekotzarako Kontratuak, baldin eta esleipendunak eskaintako aseguru-kontratuaren eskaintzak ez badira eskaintako baldintzetan formalizatzen aseguru-etxeakaz.

### **23. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK**



## IREKITZEA

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazino Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko dau, eta, dokumentazio horretan akats materialak sumatu ezker, hiru laneguneko epea emongo deutso lehiatzaileari akatsa zuzendu daian (Kontratazino Legearen Erregelamentuaren 81. art).

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendurrean irekiko dira Kontratazino Mahaiak erabagiatuko egunean. "A" kartazalean egon daitezkean akatsak zuzentzeko eperik emon bada, epe horrek ez dau hilabeteko gehieneko epearen zenbaketarik atzeratuko, eta berau eskaintzak aurkezteko epea amaitzen danetik zenbatuko da beti. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendurrean irekitzeko ekitaldiaren barri emongo jake aurretiaz lehiatzaileei, Telefonoz edo faxez.

Ondoren, eta, hala bajagoko, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazino mahaiak esleipena egin behar dauen Kontratazino Organoari pasako deutso esleipen proposamena.

## 24.- ESLEIPENA, FORMALIZAZINOA ETA GASTUAK

Prezioaz ganera erispide desbardinak baloratzen badira, esleipena gehienez hilabete biko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita, 161.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Edozein kasutan, esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen dan hurrenkerea jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen dan parte hartzaileari, errekerimentua egingo jako, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko (151.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz):

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- c) Jendurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- d) Baldintza-orri administratibo honeetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak probateko beharrezkotzat jo diran agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, I. eranskina).

Epe horretan egingo ez baleuz, uko egiten dauela ulertuko da eta zerrendako hurrengoari deituko jako aitatutako horreek egin daizan. Uko egiten dauenaren, behin behineko bermea udalaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik

20



hasita 5 egun balioduneko epean kontratazino organoak kontratua esleituko dau. Prozedura negoziaduetan eta lehiaketa-alkarizketetakoetan, esleipenak finkatu eta zehaztuko dauz kontratuaren behin betiko baldintzak (151.3 artikulua).

Guztiagaz, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzaileri jakinarazoko jake eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da (151.4 artikuluan xedatutako gitxieneko edukin eta baldintzak jarraituz).

Kontratua kontratazino gaiko helegite berezia ezarteko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikaziorik bialdu eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri daikie epe honi jagokonez).

Kasu honetan, kontratazino organoak errekerimentua egingo deutso esleipendunari, behin helegitea impinteko epea helegite barik igaro eta gero, errekerimentua jaso eta hurrengo egunetik hasita, gehienez 5 eguneko epean formalizazinoa egin daian.

Ganerako kasuetan, esleipendun eta lizitatzailerek esleipenaren notifikazinoa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazinoa (156.3 artikulua).

Formalizazinoa burutzeko esleipendunak honeek burutu beharko dauz:

- Administrazino honen bulegoetara etorri, artekaritza kontratua eta horretatik eratorten diran aseguru kontratuak formalizatzeke. Artekaritza kontratua administrazino-agiri modura formalizatuko da eta horretatik eratorten diran aseguru kontratuak dokumentu pribaduetan. Halanda guzti, horreek kontratu guztiak indarrean sartuko dira 2014ko urtarrilaren 1ean; beraz, 2014ko urtarrilaren 1ean baino beranduago formalizatuko balira, euren eragina data horretara arte atzeratuko litzateke.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazinoa web orrialdean publikatuko da eta, erregulazino harmonizaduari atxekitutako kontratuagaz izateagaitik, formalizazinoatik 48 eguneko gehinezko epean, formalizazinoa EBAOra bialdu eta, ondoren, BOEn argitaratuko da (154.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Kontratazino-organoak egingo dauen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko dau.

Esleipendunaren erruagaitik kontratua jagokon epe barruan formalizatu barik geratzen bada, Administrazinoak ezarri dauen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango dau, behin betiko bermearen ganean.

## **25.- KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZINOAK UKO EGITEA**



Kontratazino organoak uko egiten badeutso deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedurea barriro hasia erabagiten bada, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinarazoko deuse, eta Europako Batzordeari be jakinaraziko deuse erabagi hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedurea bertan behera iztea kontratazino organoak baino ezin daiteke erabagi, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dabezan gastuak konpentsatuko jakez, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen daberen printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar den moduan justifikatutako interes publikoko arrazoiakaitik baino ezin izango jake uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede beragaz beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diran arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozedureari uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedurea arautzekoetan konpondu ezin letekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoala justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez dau eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hasia berehala.

### **III.- IZAKERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZINO ESKUDUNA**

#### **26. IZAKERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua pribadu-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari jagokonez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horreez ganera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri Administrazioen kontratazinoan erabili beharreko ganerakoak be.

Administrazio-baldintza zehazten agiri honen eta espedienteagaz batera doan dokumentazino teknikoaren artean kontraesanak izan ezker, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **27.- . KONTRATAZINO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA**

Administrazioagazko auzi-errekurtsua jarri baino lehen, kontratazino arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.. artikuluko 2. atalean aitatzen diran erabagiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dagozan obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskinen 17.etik 27.



kategoriara arte sailkatuta dagozan eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diran zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa daben zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barru.

113. artikuluan arautzen dan larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsio hau emongo ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dagozan kasuetan emoten diran 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketakaz loturiko kontratazino organoen erabagi eta ebazpenen aurka, horreek esleipena bertan behera iztea edota esleipen barri bat egitea erabagi arren.

Errekurtsio bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzailleek hartutako esleipen akordioak; lehiaketean arautzen daben baldintza agiria, lizitazio iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezarten dabean agiriak; tramite ekintzak, betibe azken horreek esleipenean zuzenean edo zeharka erabagiten badabe, prozedura jarraitzea eragozten badabe edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galerea eragiten badabe. Prozedura jarraitzea eragozten daben tramite ekintzat hartuko dira lizitatzailleen baztertea erabagiten daben Kontratazino Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten deutseen tramitazio akatsak espedientea egitea jagokon organoari edo kontratazino organoari jakinarazo ahal izango deutseez interesdunek, zuzen daiezan, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten deutseezan irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalte barik.

Errekurtsioa euren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dabean pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dabe, edo errekurtsioaren xedea diran erabakiakaitik kaltetuak izan daitekezanez.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomia Erkidegoetako arauak zehaztuko dabe errekurtsioak ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomia Erkidego horreek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badaukiez, toki erregimen eta kontratazino arloari jagokonean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoan kasuetan, toki korporazinoa integratzen dan Autonomia Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu daben organoak berak izango dau eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsioa aurkeztea helburu daukan edonork aurretiaz adierazo beharko du kontratazino organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsioaren objektu izango dan prozedimentuko egintzea zehaztuz. Hori errekurtsioaren aurkezpenerako hurrengo paragrafoan ezarten dan epe barruan egin beharko dau.



Kontratazino arloko errekurtsu bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzearen jakinarazpena bialdu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalte barik:

Errekurtsoa pleguen eta generako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezarten danean, epea zenbatzen hasiko da eurok jasoten diranetik edo lizitatzailerik edo hautagaien ezagutzarako euren eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate bako prozedura negoziaduren aplikazino egintzen aurka ezarten danean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen barri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoa lizitazino iragarkiaren aurka ipinten danean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtsu idazkia kontratazino organoaren erregistroan, edo errekurtsuaren ganean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala bajagoko, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Errekurtsu bat aurkezten bada, 5 laneguneko epean helarazoko jake generako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta, era berean, bost laneguneko epea emongo jake alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu dauden erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko jake, eta hurrengo bi lanegunen barruan bialdu beharko dau jagokon txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsuen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan emon beharko dau errekurtsuaren ganeko ebazpena, eta ebazpenaren barri interesdun guztiei emon beharko jake.

Errekurtsuaren ebazpenak errekurtsua edo haren parte bat baietsiko dauz, edo formulatutako asmoak ezetsiko dauz, edo ez onartutzat adierazoko dauz, eta arrazoituta erabagiko dauz aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpen bat etorriko da eskabideagaz eta, onartu ezker, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabagien deuseztapenaren ganean ebatziko dau, lehiaketa iragarkian, gonbite iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketeagaz edo esleipenagaz zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailerik ezabatzea barruan hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren ganean.

Errekurtsuaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emongo jake 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa beteteko.





Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioagazko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioagazko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

## **28.- JURISDIKZINO ESKUDUNA**

Plegu hauetako 22. puntuan jaso dan moduan, erbesteko enpresek, kontratuan gerta leikezan zuzeneko edo ez zuzeneko gora-beheren aurrean Espainiako Epaitegi eta Auzitegien juridikzioaren mende jarriko diranaren adierazpena aurkeztuko dabe, eta hala behar izan ezker, jagoken erbesteko juridikzino-foruari uko egiten deusiela adierazo beharko dabe.

Kontratutik sortzen diran auziak, prestaketa eta esleipenari jagokenez, Administrazioagazko auzien juridikzinoaren menpe egongo dira. Ondorioei, beteteari eta amaierari jagokenez, aldiz, Jurisdikzino zibila izango da kontratuaren alderdien artean sortutako eztabaidak erabagiteko eskumenak eukiko dauzana.

Halanda guzti be, alderdi biek nahi izan ezker, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoan legerian zehaztutakoagaz bat etorritz.

Bermeon, 2013ko maiatzaren 7an

## **I ERANSKINA**



## ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZINOA

LAPLko 24. artikulua garatzen dauen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazoten dan moduan, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barruan, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen jake.

Horregaitik ondorengo agiriak aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Kontratatutako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako lanpostu ezbardinen **arriskuen ebaluazioaren eta prebentzino neurrien** agirien kopia.
- ✓ Lantokian zerbitzua eskainiko daben langileei emondako **informazioaren** erregistroaren kopia eta langile horreen **zerrenda eguneratuta**.
- ✓ Langile horreek prebentzinoaren arloan hartu daben **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horreen **lan gaitasunaren** mediku ziurtagirien kopia.
- ✓ Zerbitzua emongo daben langileei **norberaren babeserako ekipoen emotearen** erregistroen kopia.
- ✓ Enpresa kontratistearen **arduradunaren izendapena eta prebentzino baliabidearen** izendapena, balego.
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizearen kopia eguneratua.



## II. ERANSKINA

### DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

#### ..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat ..... Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK, .....enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, ..... enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKO UDALAREN kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentziasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, ..... enpreseak onartzen dauzala hurrengo

#### AITORPENAK

##### LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpreseak, BERMEOKO UDALAREN ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkerro.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, ..... enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAGAZ daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiek agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera, .....enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

## BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezgarriak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduaren arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

## HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOko UDALA "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean. ....enpreseak, "eragileak", BERMEOko UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOko UDALAK .....enpreseak aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

## LAUGARRENA .- *Konfidentzialtasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratutako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabiltzeko konpromisoa be. ....enpreseak bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentzialtasun eginbehar horrek, BERMEOko UDALaren ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietara .....enpreseak egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonan amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

## BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Honeek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago. ....enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Udalak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

## SEIGARRENA.- *Ezarri leitekezan jurisdikzioa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, 2013ko .....aren .....an

### III. ERANSKINA

#### Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,  
 ..... helbideagaz eta ..... zenbakidun  
 NANagaz, nire izenean edo ..... helbidea eta  
 ..... IFZ daukan ..... izeneko  
 enpresearen ordezt,

#### AITORTZEN DOT:

I.- .....  
 xedea daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren barri izan dodala.

II.- Kontratua arautzen daben Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dodazala, horreek onartzen dodazalarik.

III.- Ordezkatzen dodan enpresek indarrean dagoan araudiak finkatutako baldintza eta erispide guztiak beteten dauzala.

**IV.-Hitz emoten dot kontratu honeguz batera doazan prima garbieran esleipendunari jagokozan zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industria onurea be, sartuta dagozala.**

Eta beste alde batetik, polizen azken prezioan eragina daukien zerga eta portzentajeak honako honeek dirala:

Asegurua	Eskaintako prima garbia	Zerga	Zergaren % edo zenbatekoa
Erantzukizun zibileko asegurua			
Kalte materialen aseguru			
Ibilgailuen aseguru			
Defentsa juridikoko aseguru			
Korporazino kideen bizitza asegurua			
Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguru			
Udaleko beharginen bizitza asegurua			
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru			
<i>Aita Guria</i> Itsasontziko ekipo elektronikoak			
<i>Aita Guria</i> itsasontziko kroskoaren aseguru			
<i>Ortube</i> itsasontziko kroskoaren aseguru			

Erabakiak hartzen dabezenen erantzukizun zibilaren asegurua			
---	--	--	--

Bermeon, 2013ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

**IV. ERANSKINA**  
**Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakidun                      NANagaz,  
..... helbidea      eta      .....IFZ      daukan  
.....izeneko enpresearen ordezt,

KONTRATAZINO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN  
DOT

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dauzan debekuetatik bat bera ere ez daukadala.

Eta jagokozan ondorioetarako jasota gera daiten, adierazpen hau sinatzen dot.

Bermeon, 2013ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**V. ERANSKINA**  
**Lizitatzailleek beteteko inprimakia**

**ENPRESEAREN DATUAK**

**1. Enpresa indibiduala**

Izena:

NAN:

Helbidea:

Faxa:

Tel.:

PK:

Erregistratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

**2. Gizarte-enpresea:**

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

Helbidea:

Faxa:

Tel.:

Ondorengo giza-eskiturak:

**IZENA**

**DATA**

1. Aldatzea

...../...../.....

2. Handitzea

...../...../.....

3. Beste batzuk

...../...../.....

**3. Ahalduna:**

Izena:

Ahalordetze-eskritura :

- Data :

- .....ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2013ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:

**VI. ERANSKINA**  
**Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru**  
**Aldundiaren Lizitatzailleen Erregistroko datuen baliagarritasunaren**  
**Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....  
zenbakidun NANagaz , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan ..... izeneko  
enpresearen ordezt,

**KONTRATAZINO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN**  
**DOT**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailleen Erregistroak emondako ziurtagirian jasoten diran datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez be, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen dauen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluari jagokozanak.

Bermeon, 2013ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

**VII. ERANSKINA**  
**KAUDIMEN EKONOMIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....  
zenbakidun NANagaz , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan .....izeneko enpresearen ordeztan,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen dan kaudimen  
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DOT:  
Enpresearen negozioen kopurua azken hiru urteetan ondokoa izan dala:

- 2010. Urtea:
- 2011. Urtea:
- 2012. Urtea:

Eta aitaturako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa  
probatuta gerta daiten, adierazpen hau sinatzen dot.

Bermeon, 2013ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

## VIII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,..... zenbakidun  
NANagaz, ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresearen ordez,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen dan kaudimen  
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DOT:

1. Azken hiru urteetan enpresa honek egindako lanak ondokoak izan dirala:

### 2010. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATEA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2011. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATEA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2012. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATEA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2. Kontratua beteteko gure esku dagozann unidade teknikoak ondokoak dirala:

3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak dirala:

4. Enpresearen baliabide pertsonalak ondokoak dirala:

Eta aitaturako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoak probatuta gera daiten, adierazpen hau sinatzen dot.

Bermeon, 2013ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:

**IX. ERANSKINA:  
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....J<sup>a</sup>/A<sup>a</sup>.....NAN zenbakiduna,  
.....zenbakidun IFK daukan .....enpresearen ordeztu eta  
izenean,

**Erantzunkizunpean, adierazten dot:**

1.- Agiri honek aurkezteko datan, goian aitaturako enpresek ondorengo langile kopuru eta moetak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....
- Enpresearen plantilakoak diranak eta besteen kontura lan egiten daben lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daben langileak kontuan izan barik, guztira: .....
- Enpresearen plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daben portzentajea, autonomoak edota bere kontura lan egiten daben langileak kontuan hartu barik, guztira: .....

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatuarekari eskatzen deustozan agiri guztiak entregatzeko konpromisoa hartzen dot.

Bermeon, 2013ko .....aren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

**X. ERANSKINA:  
Proposatutako aseguru-kontratuen ezaugarriak**

..... Jaun/Andreak, .....  
helbideagaz eta ..... zenbakidun NANagaz, nire izenean edo  
..... helbidea eta ..... IFZ daukan  
..... izeneko enpresearen ordeiz,

**AITORTZEN DUT:**

Esleipen erispideetako b) eta c) ataletarako honako eskaintzea egiten dodala:

<b>Asegurua</b>	<b>frankizia</b>	<b>Etekinia</b>
Erantzukizun zibileko aseguria	?	X
Kalte materialen aseguria	?	X
Ibilgailuen aseguria	frankiziarik ez	ezbehar ezean prima hobaria
Defentsa juridikoko aseguria	frankiziarik ez	X
Korporazinoko kideen bizitza aseguria	frankiziarik ez	Etekinetan % partizipazioa
Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguria	frankiziarik ez	Etekinetan % partizipazioa
Udaleko beharginen bizitza aseguria	frankiziarik ez	Etekinetan % partizipazioa
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	frankiziarik ez	X
<i>Aita Guria</i> Itsasontziko ekipo elektronikoak	?	X
<i>Aita Guria</i> itsasontziko kroskoaren aseguria	?	X
<i>Ortube</i> itsasontziko kroskoaren aseguria	?	X
Erabakiak hartzen dabenez erantzukizun zibilaren aseguria	frankiziarik ez	X

Etekinetan partizipazioa:

Poliza bakotxarentzat

Batera, hiru polizentzat

Bermeon, 2013ko .....aren .....an.

Sinatuta:

NAN: